

X RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

X Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko Andoaingo Udalak izendaturiko Epaimahaiak -Jose Antonio Pérez, Andoaingo Alkatea eta mahaiburua dena, Miren Azkarate, Allande Boutin, Anjel Lertxundi, Koldo Ordozgoiti, Iñaki Zabaleta, eta idazkari lanetan eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe jardun duen Patxi Baztarrikak osatu duten Epaimahaiak, alegia- ondorengo **azken erabakia** hartu eta ezagutzera ematea adostu du:

1.- Hamar urteko bidea egin du jada Rikardo Arregi Kazetaritza sariak. 1988an sortu zuen Andoaingo Udalak sari hau, euskarazko kazetaritza bultzatzeko eta indartzen laguntzeko helburuaz. Harrezkero, urtero, hutsik egin gabe, eman izan dira sariak, eta bistan da, euskal kulturaren munduan oro har, baina bereziki euskal kazetarien artean, pisuzko erreferentzia izatera iritsi dela Rikardo Arregi Saria.

Hamar urteko historia laburrean sari-atal ugari izan ditu sariak, hain zuzen ere bultzatzaile, eragile eta akuilu izateko sortu izan baitzen: *baloraziozko kazetaritza, erreportaje idatzia, ikus-entzunezko erreportajea, komunikabideen berrikuntza, sekzioa, herrietako aldizkariak, kazetari berria eta saiakera laburra*. Nolabait esateko, kazetaritzaren azpigenero gehienetara modu berezitan iristen saiatu da saria.

Hamargarren ediziora iritsirik, epaimahaikideon iritziak entzun ondoren, sari-atalak batzeko erabakia hartu zuen Andoaingo Udalak. Bi baino ez dira sariak; biak, ordea, aurreko urteetan baino hobeto hornituak. Bata, sari nagusia, eta bestea “kazetari berria” izenekoa. Sari nagusiari dagokionez, erreportaje bat, erreportaje-sail bat, sekzio bat, artikulu bat, irrati edo telebistetako programa bat edo erreportaje bat, kazetari bat edo kazetari talde bat... edozer izan zitekeen saridun. “Kazetari berria” atalean, berriz, 25 urtez azpiko kazetari hasi berrien lanek dute saria lortzeko aukera; hori bai, kasu honetan ere, sari nagusian bezala, inolako genero mugarik gabe.

Aldaketa hauek egiteko erabakiaren oinarrian dagoena hauxe uste izatea da, hots, gaur egun euskaraz egiten den kazetaritzaren sendotasunaz eta ugaritasunaz oharturik, kazetaritza horrek erdietsi duen maila altua zuzen eta dagokion neurrian aitortzeko askoz egokiagoa dela sari nagusi bat jartzea.

2.- Edozein erataria ere, sariaren berezitasun nagusiek indarrean jarraitzen dute, hau da, eragile eta bultzatzaile izaten jarraitzea da sariaren bokazioa. Eta helburu nagusiek ere bere horretan jarraitu dute aurtengoan ere: *kalitatea* eta *eredugarritasuna* bultzatzea. Izan ere, kalitatezko kazetaritza-lanak erreferentzia bihurtzeko lagungarri izan nahi baitu sariak, euskal kazetaritzarako eta ingurukorako eredu diren lanak nabarmenarazteko lagungarri izan nahi duen bezalaxe.

Aipatutako helburu nagusi horiek eta oinarrietan jasotako irizpide orokorrak aintzakotzat hartuta egin du Epaimahaiak bere lana, eta hala erabaki ditu sariak, beti ere kontuan soil-soilik kazetaritza-balioa hartu duelarik.

Ez da adeitasun kontua, egiari zor zaion errespetua izatea baizik, aitortzea, ez dela erraza izan erabakiak hartzea. Kalitatezko lanak, eredugarri direnak, ugari dira euskal kazetaritzaren munduan, nola prentsa idatzian hala irrati eta telebistetan. Aukera faltarik ezean, beraz, sakon eztabaidatu ondoren hartutakoak dira sariei buruzko erabakiak, eta -hau ere esan behar da- aho batez hartutakoak.

Bestalde, sari nagusiari dagokionez lanak aurkeztea nahitaezkoa ez izan arren, lanak aurkez zitzaten dei berezia egin zitzaien kazetariei, eta erantzuna bikaina izan da, epaimahaiak espresuki eskertu nahi duen erantzuna. Egileek eta komunikabideek aurkezturikoen eta epaimahaikideek beren aldetik proposaturikoen artean guztira 299 lan izan ditu aztergai epaimahaiak. “Kazetari berria” atalean, berriz, 41 izan dira kazetari hasi berriek aurkeztutako lanak.

3.- Honako hau da, sariei dagokienez, Epaimahaiak hartu duen erabakia:

* **3.1.- “Kazetari berria”** ataleko saria, Epaimahaiak aho batez erabakitakoa eta 400.000,- pezetaz hornitutakoa. Kazetaritzaren hastapenetan dabiltzanei zuzendutako saria da, genero mugarik gabea eta komunikabide mugarik gabea. Muga bakarra adinarena da, 25 urtez azpikoek bakarrik baitute sari hau lortzeko aukera. Beste ezeren aurretik Epaimahaiak adierazi nahi du, kazetaritza jardunean hasi berriak direnen eta oraintxe hasten ari direnen lanak aztertzeko lan bikain ugarirekin egin duela topo, hasi berrienak baino gehiago eskarmentu handiko kazetariak diruditen lanekin alegia.

Sari hau erabakitzekoan kontuan hartu izan diren faktoreen artean honako hauek nabarmentzen ditugu: 1) egilea urte osoan zehar *Euskaldunon Egunkariako* atal baten arduradun izan da, eta atal horretan, denboran irauteaz gain, kalitate eta maila bikaineko lanak idazten nabarmendu da. Dozenaka dira sariaren epealdian egile berak argitaraturiko artikulu, erreportaje eta elkarrizketak, guztiak ere bikainak, beraiek direlarik sekzioaren ardatz. 2) Artikuluak eta erreportajeak informazio ugari eta zenbait testigantza bilduz eginak dira, eta elkarrizketak, berriz, bai gaia aukeratzekoan nola baita elkarrizketaren beraren ildoan lantzerakoan lortutako goi mailagatik nabarmentzen dira. 3) Hemendik kanpoko literatura, zine eta kultur gaiak euskal munduarekin uztartzen saiatzen da bere idazlanetan.

+ Sariduna: *Garikoitz Berasaluze* jauna.

+ Saritutako lana: *Euskaldunon Egunkariaren* “Liluratura” gehigarrian 1997ko maiatzaren 16tik 1998ko maiatzaren 15erako tartean Garikoitz Berasaluzek argitaraturiko artikulu, erreportaje eta elkarrizketak.

* **3.2.- X Rikardo Arregi Kazetaritza sariko “sari nagusia”**, Epaimahaiak aho batez erabakitakoa eta 1.000.000,- pezetaz hornitutakoa. Oinarriek atal honi buruz hitzez hitz diotenaren arabera, “edozein mota edo generotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera”, eta lehenago aipatu ditugun kalitate eta eredugarritasuneko irizpideei dagokienez “nabarmendutako artikulu edo erreportaje bakanak nahiz sortak (...) kazetari

bat edo kazetari talde bat... horietarik edozer eta/edo edozein saritu ahal izango du epaimahaiak”.

Iritziaren generokoa da saritutako lana. Ez da artikulu bat, iritzi-artikulu sorta bat baizik; guztira, ia berrehun artikulu, *X Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren* epealdian argitaratuak: urte osoko pisuzko lana da, beraz, saritua. Egilea, berriz, euskal kazetaritzaren munduan batez ere iritziaren generoa lantzen urteak daramatzen kazetari bat, zarata handirik atera gabe baina isilik sekula geratu ez dena.

Saria erabakitzerakoan kontuan harturiko faktore ugarien artetik ondorengo hauek azpimarratzen ditugu: 1) Kazetaritzak eskatu bezala, eguneroko errealitate gordinarekin lotura zuzena eta estua duten artikuluak dira guztiak. Egunero idatziak dira, udako opor hilabetea izan ezik hutsik egin gabe astero idatziak, asteartetik ostiralera. Egunerokotasun erabatekodunak dira, bada, saritutako artikuluak, euskal gizarte-bizitzan puri-purian eztabaidagai -zenbaitetan liskargai- diren gaiei buruzkoak. Azpimarratuak gera bitez, beraz, idatzitakoaren gaurkotasuna eta iritzia emateko idaztearen konstantzia, egunerokotasuna alegia. 2) Azpimarratua gera bedi, hurrena, egileak aztergaiari buruz gogoeta propioa egin izana, eta hausnarketa hori hitz gutxitan baina sakontasunaren kalterik gabe papereratzeko gaitasuna. 3) Azpimarratu behar da, halaber, idatziaren bizitasuna, biguna eta aseptikoa ez baizik eta txinpartatsua den estiloaren eraginez duen bizitasuna. Idazkera, bestalde, zorrotza bada ere, oreka eta tonu egokia gordetzen dakiena da, eztabaida pertsonalizatuari berari ere muzinik egin ez arren, halere, krispazioari ez baizik eta hausnarketari atea irekitzen dion estiloa baita. 4) Derrigor azpimarratu behar, bukatzeko, hizkuntzari dagokiona. Izan ere, egileak, zuzen ez ezik txukun eta egoki erabiltzen baitu euskara bere artikuluetan. Euskal sena darien idazlanak dira, euskararen kalitatearen aldetik eredugarri direnak, zabarkerietarako zirrikiturik lagatzen ez dutenak.

+ Sariduna: *Mikel Atxaga* jauna.

+ Saritutako lana: *Deia* egunkariko iritzi sailean 1997ko maiatzaren 16tik 1998ko maiatzaren 15erako tartean Mikel Atxagak argitaraturiko iritzi-artikuluak.

4.- “Ohorezko Aipamena”. X Rikardo Arregi *Kazetaritza sariko* epaimahaiak, hainbat aukera aztertu eta gero, aho batez erabaki du aurtengo **Ohorezko Aipamena** Inazio Arregi Zendoia eta Juan Lekuona Urrutia jaunei egitea.

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren baitan, orain arteko bederatzireteetan hiru aldiz bakarrik egin izan da *ohorezko aipamena*. Lehen urtean egin zen lehenbizikoa, 1988/1989an alegia, zazpi urte geroago bigarrena, eta iaz hirugarrena. “*Eskualduna/Herria*” aldizkariarentzako izan zen lehenengoa. Bigarrena, berriz, duela bi urte egindakoa, 1936an piztutako gerra zibilaren garaiko eta aurreko euskal kazetariei egin zitzaien. Eta iaz Martin Ugalde kazetari eta idazleari egin zitzaion.

Azal ditzagun, orain, Inazio Arregiri eta Juan Lekuonari *ohorezko aipamena* egiteko erabakia hartzeko orduan baliatu eta azterturiko pisuzko irizpide eta arrazoi ugariak, ondorengoak hain zuzen ere.

1961-1979ko tartean, gure Herriarentzako garai zail haietan, euskarazko esatari eta kazetarien mintegi eta eskola izan ziren Loiolako eta Donostiako Herri Irratiak Inazio Arregi eta Juan Lekuonaren zuzendaritzapean. Euskarari aukera bat eman eta leku bat egin zioten uhinetan. Egia da, eta hala esan behar da, euskarazko irratigintza hasi ez zela Loiola eta Donostiako Herri Irratiekin hasi, aurretik ere bai baitzen euskarazko irratsaierik hainbat emisora eta irratikatetan. Ez goaz hemen haiek guztiak aipatzera, luze joko bailiguke. Baina gogora ekartzekoa da, esaterako, urrutira gabe, Donostiako Herri Irratiak berak, oraindik Gotzaitegiaren ardurapeko zen garaian, azkenaldian, izan zuela euskarazko programazio berezitua, bai baitzituen informazio orokor, kirol eta kultur alorreko euskarazko irratsaierak. Baina euskarazko irratigintzaren hasiera urteetako urratsik irmoen eta iraunkorrenak Loiola eta Donostia Herri Irratiek Arregi eta Lekuonaren ardurapean emandakoak dira.

Bi gizon hauen gerizpean eta denboraren poderioan irrati bion inguruan gizatalde zabal bat osatu zen, zabala izateaz gain euskarazko irratigintzan sustraiak ere bikain errotu zituen gizataldea. Inor ahazten ez dugulakoan -eta halako hutsik egingo bagenu aldeztu aurretik barkamena eskatuz- aipatzekoak ditugu garai hartan aipatutako bi irrati horietan irratsaierak euskaraz egiten zituztenetako batzuk: Inaxio Mari Atxukarro, Maritxu Martinez, Juan Goikoetxea eta Joxe Aranburu (hauek hilak), Aureli

Orbegozo, Imanol Elias, Patxi Altuna, Patxi Goenaga, Nikolas Aldai, Jose Maria Bergara, Iñaki Letamendia, Luis Mari Bereziartua, Karmelo Otaegi, Jose Mari Iriondo, Ixiar Sagarzazu, Justa Egaña, Mari Karmen Garaizabal, Jaime Zubia, Andoni Lekuona, Jose Mari Otermin, Txaro Arteaga, Iñaki Beobide, Jose Ramon Beloki, Iñaki Zubizarreta, Julian Beloki, Inazio Arregi bera...

Aipatutakoen eta beste askoren eskutik euskarak aisialdiaren esparrua irabazi zuen irratian, informazio iturri eta informazioa emateko tresna izan zen, herrietako albisteetatik hasita beste informazio-eremu zabalagoetaraino iristeko. Bertsolaritza sustatu zuten, baita garaiko euskal kantagintza ere, eta, oro har, euskal kulturaren zabalpena egin zen. Horrekin batera ekin zitzaion, halaber, kultur mundu berriagoetara moldatzeko ahaleginari. Nekazaritza eta baserri giroko saioak gogotik landu zituzten, eta hauekin batera lanarekin eta sindikalgintzarekin zerikusia zutenak ere. Hainbat eta hainbat baserri-sukaldetara meza eta errosarioa ere eraman zituzten. Haurrentzat eta gazteentzat moldaturiko irratsaioak ere antenaratu zituzten.

Aipatzekoa da, halaber, Inazio eta Juan, Juan eta Inazio, bi jesuita hauen ardurapean euskara batuari *bai* esan ziotela aipatutako bi irratiek, eta Euskaltzaindiak hartutako bidea gizarteratzeko puntako lagungarri izan ziren horrela.

Loiolako Herri Irratia 1961eko otsailaren 11an hasi zen emititzen, orduan artean proba modura; erabat, urte bereko San Inazio egunean hasi zen, Juan Lekuona zuzendari zuela. Fragaren legea bitarteko, 1965eko uztailaren 22an mututu zuten eta 1966ko uztailaren 31an ekin zion berriro emititzeari, oraingoan FM-ko bandan. Aipatzekoa da behartutako mutualdi hartan 4.800 bazkide egin zituela Loiolako Herri Irratiak.

1970ean Juan Lekuonak Donostiako Herri Irratiaren zuzendaritza ere beregain hartu zuen, eta 1975era arte bi irratiaren zuzendari izan zen. 1975etik aurrera Inazio Arregiren zuzendaritzapean geratu zen Loiolako Herri Irratia. Esan behar da, halaber, 1966tik 1975erako tartean Loiola Herri Irratiko Zuzendariorde eta Programakuntzaburu izan zela Inazio Arregi.

Frankismoaren azken urteetan eta trantsizioko lehenengoetan pisu itzela izan zuten bi irratiek. Gogora ekartzekoa da, 1976ko martxoaren 27an Jose Ramon Belokik zuzenduta egindako 24 ORDUAK EUSKARAZ irratsaio erraldoia. Euskarazko irratigintzaren aldeko aldarrikapena izan zen hura: egun osoz irrati-uhinetan barrena Euskal Herrian zehar euskararen eta askatasunaren aldeko nahia zabaltzeko balio izan zuen hark. Oraindik ere jende askoren oroimenean gorderik da irratsaio haren bukaera modura Donostiako Belodromoan ospatu zen jaialdi ikaragarri hura.

Irrati haiek, Arregi eta Lekuonaren eskutik euskaltzaletasuna zabaltze aldera eta informazio-askatasuna indartze aldera erakutsitako jarreraren ondorioz, nozitu behar izan zuten zentsura eta erasorik franko. Isun eta debeku ugarien artean, halere, ezin aipatzeke utzi 1977ko ekainaren 11an jasandakoa: egun hartan Loiolako Herri Irratiak Itxumendin zituen antena eta transmisorea suntsitu zituen Batallón Vasco-Español talde parapolizialak lehergailu baten bidez. Hurrengo urtean, 1978an, bi irratiak berriro ixilarazten saiatu zen Madrileko Gobernua.

Inaziok eta Juanek, Juanek eta Inaziok, lanean jarraitzen dute, biek euskarari bizkarrik eman gabe jarraitu ere. Juan Lekuona Donostia-Loiola Herri Irratiaren zuzendaria da, eta, gauza jakina bada ere gaur hemen esatea bidezkoa da, gaur egun ere bere lekua duela euskarak Lekuonaren zuzendaritzako irratian, Donostia-Loiola Herri Irratian. Inazio Arregik, berriz, Euskadi Irratiak izan zuen lehenengo zuzendariak, 12 urte daramatza Vatikanoko Irratian lanean. Arregi Vatikanoko irratiko informatiboen zuzendaria eta programazioko zuzendariordea da gaur egun. Gainera, irakasle da Erromako Gregoriar Unibertsitate Pontifizian. Hori guztiori gutxi ez eta Erromatik Euskadi Irratirako kronikak egin eta antenaratzen jarraitzen du.

Inazio Arregiri eta Juan Lekuonari egiten zaien *Ohorezko Aipamen* hau, beraz, *Loiolako eta Donostiako Herri Irratietako* talaiatik euskarari uhinetarako leihoak zabaltzearekin eta euskarazko irratigintzaren sustraiak sendotzearekin euskal kazetaritzaren aitzindari gisa egin duten lan bikaina aitortzeko eta eskertzeko egina da. Izan ere, euskarazko irratigintzak asko zor baitio Arregik eta Lekuonak eragindako harrobiari.

Honaino, bada, *X Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari* dagokion **azken erabakia**, Epaimahaikide guztiok ontzat ematen eta sinatzen duguna gaur, Andoainen, mila bederatziehun eta laurogeita hemezortziko ekainaren hogeian.

José Antonio Pérez

Miren Azkarate

Allande Boutin

Anjel Lertxundi

Koldo Ordozgoiti

Iñaki Zabaleta

Patxi Baztarrika